

IRAKASKUNTZA PUBLIKOAREN GASTU ETA FINANTZAKETAREN ESTATISTIKA 2001. URTEA


Ikastetxe publikoetako gastua irakaskuntza arautuko gastu osoaren % 63,4 izan zen 2001. urtean

Batez besteko gastu hori ia 4.000 eurokoa izan zen ikasleko, eta ia 80.000 eurokoa eskola-unitateko.

2001ean, Euskal AEko ikastetxe publikoen guztizko gastua 1.178 milioikoa izan zen. Horrenbestez, % 22,8 handitu zen 1999. urtearen aldean. Handitze hori azeleratu egin da, aurreko biurtekoan izandakoaren aldean, EUSTATEk landutako datuen arabera. Ikastetxe publikoetako gastua BPGaren % 2,7 izan zen 2001. urtean Urte berean, ikastetxe pribatuetan, 680 milioi euroko gastua egin zen. Hortaz, ikastetxe publikoetan egindako gastuak gastu osoaren % 63,4 hartu zituen.

Ia gastu hori osoa, % 91,8, jarduera arruntetarako da; eta gainerako % 8,2ak, inbertsioetarako. Gastu arrunta, 1.081 milioi euro, irakaskuntzara bideratu zen % 95 (irakaskuntzako atal nagusia —% 89,3— langileria-gastuak izanik); jarduera osagarrietara, % 0,4; eta zerbitzu osagarrietara (jantokia eta eskola-garraioa, batik bat), % 4,8.

1. grafikoa: Gastu osoaren bilakaera, hezkuntza-mailako (euroak, milakotan)



Iturria: EUSTAT

Ikastetxe-motaren arabera, gastuaren % 74,5 hartu zuten unibertsitatearen aurretiko mailetakoei, % 22 unibertsitateak, eta % 3,5 arte-ikastetxeek. Ikastetxe pribatuekin alderatuz gero, unibertsitate publikoak % 14 gehiago hartu zuen gastu osotik.

Irakaskuntzako gastuen hazkunde-erritmoa handitu egin da ikasleko eta unitateko; biak hala biak antzeko ehunekoan handitu ere. Hartara, 1999 eta 2001 bitartean, % 26 eta % 25,7 hazi ziren, hurrenez hurren.

Irakaskuntzako gastuak, eskola-unitateko, Haur eta Lehen Hezkuntzan 58.717 eurokoak izan ziren, batez beste, 2001. urtean: 56.735 euro Haur Hezkuntzan, eta 64.795 euro Lehen Hezkuntzan. Guztizkoan, erdi-mailako irakaskuntzako ikastetxeetako gastuak 110.249 euro izan ziren, unitateko, honela banatuta: 99.955 euro DBHrako, 133.328 euro batxilergoko lineetarako, eta 112.551 eta 117.817 euro bitarte erdi- eta goi-mailako Lanbide Heziketarako.

Irakaskuntza-gastuak, Haur eta Lehen Hezkuntzan, batez beste 3.882 eurokoak izan ziren ikasleko: 3.585 euro Haur Hezkuntzan, eta 4.644 Lehen Hezkuntzan. Erdi-mailako irakaskuntzako ikastetxeen guztizkoan, berriz, ikasleko 6.032 eurokoak izan ziren: 6.093 DBHn, 5.133 Batxilergoan (BBB/UBI), 7.427 erdi-mailako Lanbide Heziketan, eta 7.394 goi-mailako Lanbide Heziketan. Araubide bereziko irakaskuntzetan (hizkuntzak, musika, eta arte eta lanbideak), ikasleko 934 eurokoak izan ziren; eta unibertsitatean, 3.662 eurokoak.

Ikastetxe publikoen guztizko sarrera 1.183 milioi eurokoa izan zen. Horietatik % 92,4, sarrera arrunta; eta % 7,6, kapital-sarrera. Finantzaketa publikoa guztizko sarreraren % 93 izan zen, iturri nagusia Hezkuntza Saila izanik (% 86), eta ondoren udalak (% 5,3). Iturri pribatuek guztizkoaren % 5,5 eman zuten, batik bat irakaskuntzako kuoten bidez (% 3,3) eta jarduera nahiz zerbitzu osagarrien bidez (% 0,2).

1. taula: Aldagai nagusien bilakaerari buruzko laburpena

	1991	1993	1995	1997	1999	2001	Aldakuntza 2001/1999	Aldakuntza (1) 2001/1991
Guztizko gastua (milioi €)	555	681	782	855	959	1.178	22,8	7,8
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	1.574	2.043	2.300	2.587	3.125	3.939	26,0	9,6
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	35.750	45.040	49.504	57.210	63.347	79.617	25,7	8,3

(1) Urteko tasa metatua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500. Faxe: +34-945 017 501. Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel.: 47-945 017 534. Faxe: +34-945 017 501.

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es